

# **EUSKARA OTE DA BIZKAIERA?**

Koldo Zuazo

## 1. AUZOETARA BEGIRADA BAT

Estatu espainiarrean dauden hizkuntz arazo ugari eta larrien artean —arazooi, istilu eta gatazka iturri bihur ez daitezen noski, ezikusi egiten bazaie ere— valentziera katalanez mintzo diren gainontzeko komunitateengandik banatzeko eta urruntzeko ahalegina dugu nagusienetariko bat. (Ia) hizkuntzalari guztiek valentziera katalanaren barietate dialektal bat dela aho batez aitortzen duten arren, askotxo dira batasun hori inondik inora ere ontzat eman nahi ez dutenak. Eztabaida bizi hauen haria hurbilagotik ezagutu nahi duenarentzat guztiz baliagarriak dirateke lehen aldiz 1933an argitaratutako Manuel SANCHIS GUARNER hizkuntzalari ezagunaren *La llengua dels valencians* edota oraintsuago Antoni FERRANDO FRANCESek plazaratutako *Consciència idiomàtica i nacional dels valencians* (Universitat de Valencia, Valencia, 1980).

Banatze eta bereizte ahaleginok, ordea, Valentziara ezezik beste lurralde batzutara ere hedatu dira azken urteotan, hala nola Lleidara, Tortosako eskualdeetara, etab. Honetan ere gehiegi ez luzatzeagatik, eta eskura errazak zaizkigun lanak baizik ez aipatzeko, hor ditu interesatuak Josep MELIAREN *Informe sobre la lengua catalana* (Magisterio español, Madrid, 1970, 133-135. orr.) eta, batez ere, Rafael Lluís NINYOLESen liburu ezagun samarra: *Idioma y poder social* (Tecnos, Madrid, 1972, 170-180. orr.). Egile berarena: “Las lenguas en el ámbito español”, *Bilingüismo y biculturalismo* (ICE de la Universidad de Barcelona, Barcelona, 1978, 59-92. orr. eta bereziki 73-75. orr.).

Gogorki salatu izan dira —eta badu honek gure gaiarekin zerikusirik— ahalegin hauek katalanaren normalizazioari ezartzen dizkioten oztopoak *Congrés de Cultura Catalana. Resoluciones (I)* liburuan (14-15. orr.):

“(…) Es per això que es crea a cada un d’ells —katalan herrien baitan alegia— un sentiment de particularisme que, en l’aspecte sociolingüístic, és la causa principal que la immensa majoria de catalanoparlants creguin i diguin que parlen, segons el seu país d’origen, el ‘valencia’, el ‘català’, el ‘mallorquí’, etc. com a llengües diferents, essent així que, en realitat, fan servir diverses varietats d’una mateixa llengua: la catalana. (...)”

Sigui com sigui, aquest fet representa un obstacle a la normalització de la llengua catalana en el seu conjunt, ja que el reconeixement a nivell popular d'aquesta unitat lingüística és necessari: a) perquè es doni una convergència dels esforços de tots els Països Catalans a favor de la normalització del català; b) perquè tota la població accepti que el català sigui el vehicle de comunicació entre els nostres Països; i c) perquè la població vulgui avenir-se a un procediment que obviï els problemes que puguin sorgir en la comunicació provocats per la mateixa variació geogràfica de la llengua.”

Beste liburuki baten ere (*Congrés... (II)*, 329. orr.) azpimarratuko dira standardizazioari buruzko ondorio kaltegarri horiek:

“Un dels problemes que més preocupen els escriptors quant a la qüestió de la llengua literaria és la dicotomia constant que se'ls planteja entre un estàndard literari, basat sobretot en el dialecte central del català oriental, i l'ús del dialecte propi de l'escriptor segons la seva procedència.

(...) L'escriptor valencià, rossellonès, mallorquí, menorquí o eivissenc i també l'escriptor lleidatà (pero en aquest cas en menor grau) pot trobar dificultats reals per tal de ser acceptat pel públic de la seva contrada d'origen si usa un català estàndard. Perquè el seu públic pateix la constant manipulació dels búnquers locals que neguen la unitat de la llengua catalana i fragmenten la nostra llengua en campanyes que tenen el suport dels poders locals (polèmica d'en Pep Gonella a les Illes, invent del 'mossàrab' per part del búnquer-barraqueta del País Valencià, etc.).

Davant del problema, els escriptors adopten postures diverses: l'acceptació d'un català literari estàndard (amb algunes ampliacions a través del lèxic dialectal propi); l'ús exclusiu del dialecte (la qual cosa provoca greus problemes de normativa ortogràfica i sintàctica); o bé la investigació lexical dels dialectes i l'ús moderat de formes dialectals i d'algunes formes sintàctiques reconegudes.

Aquesta tria respon, moltes vegades, a la intenció i a les característiques de l'obra. (...)”

Azken aipu honek erakusten duenez, katalanaren barietateak elkarrengandik sakabanatze ahaleginotan eragin haundia izan dute —pentsatzekoa ere bazenez!— arrazoi politikoek. Argibide ugari eskaintzen dizkigu mota honetako arrazoiez Joan FUSTER valentziarrak bere *Nosaltres els valencians* liburuan. Beronek dioskunez, bi jokabide ezberdin, baina elkarren osagarri, hartu izan dira komunitate katalanean egindako eskualdekatze planetan: alde batetik eskualde batzuk besteengandik zatitu egin dira eta, bestetik, gaztelaniaz mintzo diren lurraldeak erantsi zaizkie. Horrela, 1836an Villena erantsiko zaio Alacanti eta 1851n Requena Valentziari. Hauxe zen, Fusterrek adierazten duenez, erabaki hauen helburu izkutua:

“(…) Tant Puna cosa com l'altra anaven adreçades a sufocar el nervi català de la regió, compensant-lo amb l'augment del sector castellà, o dissolent-lo en un còctel territorial més ampli. Seran els liberals del Vuit-cents els encarregats de procurar-ho. (...)” (Fuster, 114. orr.).

XIX. mendeko eskualdekatze politikaz diharduela, berriz, zera esango du: “(...) Els moderats del 1874 imaginaren una 'regió' que incloua les tres províncies valencianes, més la de Múrcia i Albacete. En 1884 el propòsit encara era més absurd: una 'regió' abraçaria les províncies de Castelló de la Plana i de València, amb les de Conca i Terol, i una altra la d'Alacant, amb les de

Múrcia i Albacete. En 1889 hom resuscitava el model del 1847. En tots els casos el perfil del País Valencia quedava destruït. (...)” (Fuster, 117. orr.).

Eta beheraxeago:

“De tot això ha sorgit, últimament, una altra etiqueta deformadora: la de *Levante*. (...) Ningú no ignora que un dels designis que l’animen és, precisament, el de retirar de la circulació el terme ‘valencia’ per a qualificar el país. Al mateix temps involucra en la seva ambigüetat més terres que les estrictament valencianes. Hom voldria restringir el gentilici comú a la sola província de Valencia (...). Pero, sobretot, hom voldria acollir en la denominació *levantina* la província de Múrcia i no sé si també la d’Albacete. (...)” (Fuster, 118. orr.).

## 2. JARRERA SAKABANATZAILEAK EUSKAL HERRIAN

Katalan komunitatean valentzierarekin —eta are gainerako barietateekin ere— gertatuak badauka nolabaiteko kideasuna Euskal Herrian bizkaierarekin jazo denarekin. XIX. mendeaz geroztik nabarmen ageri dira bizkaiera —euskalki haxe batez ere— gainontzeko euskalkiengandik bereiztu eta urruntzeko ahaleginak, Euskal Herrian hizkuntza bi daudela esateraino hain zuzen: bizkaiera batetik eta gainerako euskalki guztiak bestetik.

Esan dezadan lehenbailehen, baina, ez dutela jatorri eta izaera bera bizkaieraren eta valentzieraren auziek. Alde batetik, Euskal Herrian ez da eman Bizkaia beste herrialdeetatik bereizteko urratsik. (Urrats horiek ez zaizkigu, dena dela, erabat ezezagunak: Iparraldean, Lapurdi eta Nafarroa Beherearen-gandik banaturik ageri zaigu Zuberoa, bai administratiboki eta bai beste hainbat sailetan. Hegoaldean, oster, Nafarroa dugu beste herrialdeengandik urrundurik dabilkiguna). Bigarrenik, bizkaiera gainerako euskalkiei kontrajartzeari ekin diotenak ez dira izan, nagusiki behinik behin, politikoak, hizkuntzalariak eurak baizik.

Nolanahi ere, eta bi komunitateetako auzion izaera ezberdinan gorabehera, ondorioak antzerakoak izan dira batean zein bestean, Euskal Herrian ere Bizkaian eta bizkaieran aurkitu bait ditu standardizazioak eragozpenik larrienak.

Eragozpenok, bizkaiera bazter-euskalkia izanik, alde aurretik ere ikusten ziren arren, XIX. mendeaz geroztik, eta euskalki honen jatorri berezia frogatu beharrak eraginda, areagotu eta sakondu baizik ez dira egingo.

### 2.1. Aitzindari zenbait

Gutziz mugari erabakiorra dugu 1848an plazaratutako *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino* izeneko liburua, berau delako argitara eman den bizkaieraren lehenbiziko gramatika eta jakinekoa bait da gramatika baten egindako aukerek eragin zuzena izan dezaketela hizkuntza arautze eta standardizatzeko orduan. Zavalaren gramatika honi gagozkiola, argi ageri da aukera zenbaitetan *logika* hartu duela egileak erizpide nagusizat eta ez beste horrenbeste forma bakoitzaren *aintzinasuna* edo erabilia den *hedadura*. Adibide bat edo beste baizik ez aipatzearen, *dozuz*, *doguz*... hobetsiko ditu Zavalak eta *dituzu*, *ditugu*... baztertuko, azken hauek, nahiz eta Euskal Herri osoan —biz-

kaieran barne—, eta lehen izkribuetatik hasita gainera, ezagunak izan, ez omen datozelako bizkaieraren izaerarekin (aditzen pluralgilea —z erantsiz egitearekin) bat. Era berean *zintzan*, *gintzan*.. hobetsiko ditu eta *zin(e)an*, *gin(e)an*... bazter-tuko, azken hauek Euskal Herri osoan —bizkaieran barne berriz ere—, eta izkriburik zaharrenetatik hasita, aurki ditzakegun era *bakarrak* diren arren, beste haiek hobeto egokitzen ornen direlako *nintzan*, *intzan*, *zan*... ereduari. Argiak eta zehatzak dira Zavalaren hitzak honetan:

“(…) advierto que en caso de variantes escojeré los que me parecen formados con mas uniformidad, aun cuando no estén tan bien recibidos, especialmente si los han usado algunos de nuestros escritores. (...) A veces pondré unos y otros dando la precedencia á los mas uniformes como en los de las 2.as personas de singular y 1.as del plural de la conjugacion pura de indicativo en activa *dozuz*, *dituzu*: *doguz*, *ditugu*; y en la mista *cintzan*, *cinéan*; *guintzan*, *guinean*”. (Zavala, VI. orr.).

Gauza berbera errepikatuko du beherago ere, oraingo honetan, gainera, —*it*— pluralgiledun adizkiak beste euskalkietatik *mailegatuak* direla baieztatzen duelarik:

“Nada digo del *evazan*, *ev’ezan*, *nevazan* de Lequeitio, y aun los dos primeros de Orozco...: ni del *nendun*, *nenduzan*, *eud’ezan* de todo el centro de Vizcaya, que sin duda son de una formación mas conforme al resto de la conjugación, que *cituan*, *cituen*, *nituan* que han adoptado nuestros escritores (...)” (Zavala, 56. orr.).

Berdin beheraxeago ere:

“(…) en Vizcaya son mas usuales los que no llevan tal aditamento (*-it-* pluralgilea, alegia), si esceptuamos á ‘d’-it-u y bal’-it-u’, que se usan exclusivamente, y en parte de ella á ‘d’-it-u-e, n’-it-u-an, c’-it-u-an, y c’-it-u-en y bal’-it-ue’ con sus correspondientes familiares.

Esta *it* tiene la misma significación y uso que la *z* final (...) de suerte que ‘gaituzu, ditut, nituan, cituan etc.’ son lo mismo que ‘gôzuz, dôdaz, nevazan, ó nenduzan, evazan etc.’. Sin embargo esto no suele quitar el que en muchos pueblos fijen dicha *z* á los artículos que llevan la *it*, diciendo ‘zaitudaz, gaituz, ditudaz, nituzan’ etc.” (Zavala, 63. orr.).

Pentsatzekoa denez, honako hauek dira Zavalak bizkaierarentzat proposatuko dituen orainaldiko adizkiak: *dôdaz*, *dôzuz*, *ditu* (!), *dôguz*, *dôzuez*, *daveez/daudeez*, jarraian ohar hau egiten duelarik:

“Los precedentes artículos de paciente de plural son los mas usuales en el centro de Vizcaya, y aun los que tienen su formación mas arreglada al resto de la conjugación; pero en algunos pueblos usan los siguientes: *ditu/dituz*; *ditue/dituez*; *dituzu/dituzuz*; *dituzue/dituzuez*; *ditut/ditudaz*; *ditugu/dituguz*”. (Zavala, 74. orr.).

Iraganerako, berriz, beste hauek: *nenduzan*, *cenduzan*, *euazan/ebazan*, *guenduzan*, *cenduzezan*, *eu’ezan/eud’ezan*, ondoren goiko ñabardura bera eginez:

“Aunque los precedentes artículos son muy usuales, especialmente suprimidas las u-es que siguen inmediatamente á la radical *endu*, y diciendo *ceñdun*, *nendun*, *guendun*; pero como en muchos pueblos lo son mas otros, y de algunos de ellos han hecho uso nuestros escritores, los voy á poner aqui: *cituan/cituzan*; *cituen/cituezan*; *cenduzan*; *cenduzezan*; *nituan/nituzan*; *guenduzan*” (Zavala, 77. orr.).

Bonaparte Printzearen eta beronen laguntzaileen jardunak, bere osotasunean harturik arras onuragarria gertatu bada ere euskararentzat eta Euskal Herriarentzat, alde makurrik ere izan du. Alde batetik, euskalkiak lantzeko neurritz kanpoko grina nagusituko da euskara standard bakarra eraikitzeke asmoak bertan behera utziko direlarik eta, honekin batera, euskalki eta azpieuskalki bakoitzaren nortasuna azalera atera beharrak eraginda edo, bitxikeriarik txikienei sekulako indarra emango. Jarrera honen adibide gardena daukagu Aita Uriartek Bonaparteri, azken honek agindu zion gipuzkerarako itzulpena burutzeko egin beharreko aukerez mintzo zaiolarik, 1857ko agorrilaren lehenean egin gutunean:

“Empleo los términos: *vicitu, izandu, aundia* y otros muchos por distinguirlos del vizcaíno, aunque podrían decirse: *vici, izan, andia*.

(...)

*Baicican, gandican*, uso generalmente por diferenciar del vizcaíno y dar aire guipuzcoano.

*Aguertuten, agueritu, dirade*, por distinguir del vizcaíno.

(...)

*Burau, baraur, barur*: uso los últimos por diferenciar del vizcaíno”. (R. de Larrinaga, 52. orr.).

Berdin urte bereko agorrilaren 17an eginikoan, betiere eginahalak egingo dituelarik bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko mugak ahalik eta argien ezartzearen:

“(…) debo advertir que en cuanto he leído a Lardizabal no recuerdo haber hallado *Jaungoicoa*, sino en la pág. 398. Lo mismo digo de *gandic* y *gandican*. Creo que debe usarse *Jaincoa* y *Jaungoicoa*, *gandic* y *gandican*; pero en la traducción de Beterri deben usarse mucho más *Jaincoa* y *gandican*: lo primero, porque se estilan cuando se habla con elegancia y lo segundo, porque se diferencian del vizcaíno. Esto mismo creo en *ciran* y *ciraden*, *vici*, *vicitu*, *izan*, *izandu*, *sinistu*, *sinistatu*... pueden usarse ambos, pero dando la preferencia con mucho exceso a los segundos por las mismas razones anteriores.

(...)

(...) Cuando me hallo con un término vizcaíno, o labortano, para Guipúzcoa adopto el labortano, v. gr.: *anitz* prefiero a asco.

(...)

(...) Bajo estas observaciones convengo con S.A. que Lardizábal sea preferido hoy a todo escritor bascongado: que puede adoptarse todo término, que se lee en Lardizábal, siempre que no sea vizcaíno (...).

(...)

(...) hago uso de todos los autores bascongados, dando la preferencia a Lardizábal y luego a Aguirre; pero tomando de cada uno lo que creo mejor para hacer la traducción literal, ligada, bíblica, del dialecto guipuzcoano de Beterri; pero, en cuanto se pueda, diferente del vizcaíno y labortano, a fin de que se conozca la diferencia de los dialectos”. (R. de Larrinaga, 53-55. orr.).

Eritzi hauek bizi-bizirik iraungo dute XX. mendean ere eta euren aldekoak ez dira hizkuntzalaririk kaskarrenak ez ezjakinenak izango. R. M.<sup>a</sup> de Azkue euskaltzainburua, euskalki guztien berri zuena eta literatur tradizioa ere hurbiletik ezagutzen zuena dugu, esate baterako, horietariko bat eta 1891n argitara emandako *Euskal-Izkindea* gramatika “harrigarrian” ezezik —honetan, Azkueren beraren hitzetan “gaztaroko bekatu” zelarik, ulergarria gerta bait

daiteke horrelako eritziak aldarrikatzea— baita gizon eta hizkuntzalari heldua zelarik eraturako *Morfología Vasca-n* ere agertuko da horren aztarnarik. Azkueren ustez ere —z zen bizkaieraren *jatorrizko* pluralgile *bakarra*, —it— erakoak gipuzkeratik mailegatuak lirakeelarik:

“La característica de pluralidad objetiva es en B *z* siempre y con todo núcleo, ya sea de verbo auxiliar o no auxiliar, transitivo o intransitivo. En dialecto G es *it* esta característica en los auxiliares transitivos de indicativo (núcleo *u*) y subjuntivo (núcleo *za*). En otros verbos es *z*; en algunos *zki* y hasta *tzi*. Este elemento *it* se ha introducido mucho en el auxiliar transitivo bizkaino (...). Solo conozco una zona, la de Zigoitia, en que no se oye una sola flexión formada con tal característica. En otras zonas es hoy muy usual: A) Con el objetivo *z*: *zaitu* por *zauz*, *zaitut* por *zaudaz*... y otras (...). B) Con los otros dos objetivos plurales *g* y *d* cuando el agente es de tercer grado: *gaitu* y *gaitue* por *gauz* y *gauez*, *ditu* y *ditue* por *dauz* y *dauez*.

(...)

Hay varios pueblos que en no pocas de estas flexiones hacen uso simultáneo de las dos características *z* e *it*: *gaituzak*, *gaituzana*, *gaituz.. zaitudaz*, *zaituz...* *ditudaz*, *dituzak*, *dituzan*, *dituz...* etc.” (Azkue, 689. orr.).

## 2.2. Bizkaiera versus Gainerako Euskalkiak

VAN EYS holandar hizkuntzalariak 1879an argitaratutako gramatika koka genezake, nik ezagutzen dudala behinik behin, bizkaiera beste euskalkiei kontrajartzen dien tesiaren abiagunea:

“(…) quant au verbe, qui est toujours un trait distinctif, le guipuzcoan est beaucoup plus rapproché du labourdin que du biscaïen: il n’emploie ni *eutsi*, ni *egin*, ni *joan* comme verbes auxiliaires, ce qui est extrêmement remarquable, le guipuzcoan étant un dialecte basque d’au-delà des Pyrénées; faudra-t-il en conclure que le guipuzcoan & les dialectes basques français ont formé autrefois un groupe homogène, séparé du biscaïen, mais toujours dans une relation de dialectes, ou faudra-t-il envisager le biscaïen comme un dialecte plus ancien? Il serait peut-être prématuré de se prononcer sur cette question d’une manière décisive, mais il nous semble que le dialecte biscaïen pourrait être considéré comme l’aîné de la famille”. (Van Eys, 4. orr.).

Posibilitate hau berau adieraziko du Arana-Goirik —eta baliteke Van Eysen jarraitzaile izatea honetan— 1896an argitaratutako *Lecciones de Ortografía* lan ezagunari egindako hitzaurrean:

“Propiamente no son más que tres (euskalkiak, alegia), que aun tal vez puedan reducirse a los dos primeros que nombro: podemos designarlos con los nombres de *bizkaino*, *vaskón* y *pirenaico* (...)” (Arana-Goiri, 821. orr.).

Arana-Goirik posibilitate legez eta zuhurtzia haundiz zioena, baina, egia garbi eta biribil bailitza aldarrikatuko du beraren jarraitzaileetariko zenbaitek. Arriandiaga dugu horietako bat:

“Examinando con atención al pueblo vizcaíno, vemos claramente ser un pueblo distinto dentro de la familia vasca. La razón más convincente está en el dialecto vizcaíno. Los vascos poseemos todos un Euzkera, pues el Euzkera no es más que uno. Pero ese Euzkera tiene en Bizkaya diferencias muy señaladas de las que en otras regiones de Euzkadi. Esta diferencia dialectal tan

marcada determina diferencia de tribu dentro de la familia ó raza vasca. Los guipuzcoanos hacen tribu muy distinta de los vizcaínos, los laburdinos la hacen menos distinta de los guipuzcoanos que de los vizcaínos; y así de las demás tribus vascas”. (Arriandiaga, 670. orr.).

Antzerako eritzikoa izango zen Eleizalde bera ere:

“(…) quizá sería más propio hablar de *lenguas euzkéricas* que de dialectos. Pero entonces las lenguas no serían ya tres, sino dos, puesto que el dialecto pirenaico podría agruparse con el vascón, y resultarían dos lenguas vascas: la *bizkaina* y la *no-bizkaina*; á esta última podría denominársela *vascona*. Yo creo que entre ambas hay tanta diferencia como entre el español y el portugués, por ejemplo”. (Eleizalde, 268. orr.).

Eta lerro batzuk beherago (269. orr.):

“El Euzkera actual procede del choque de dos distintos Euzkeras, uno de los cuales influyó más en el bizkaino que en el vascón. (...)”

Urte batzuk beranduago Euskal Herritik at hedatuko zen tesi honen oihartzuna. 1924ean, hain zuzen ere, A. Meillet eta M. Cohen-en zuzendaritzapean mundu zabaleko hizkuntzen berri ematen zen liburu mardul bat argitaratzen zen, euskarari buruzko txostena G. Lacombe egokituko zuelarik. Hauxe da bertan esaten dena:

“Une chose avant tout frappe celui qui veut observer la langue basque, qu’il la prenne dans sa réalité vivante ou dans les livres, c’est son extrême variété dialectale. Plusieurs auteurs, depuis le XVIIe. siècle, se sont occupés de classer ces dialectes. (...) Il nous semble qu’il serait suffisant de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l’on pourrait appeler aussi basque occidental) d’un côté, et de l’autre côté tous les autres dialectes (guipuzcoan, labourdin, souletin, parlars de la Navarre française et de la Navarre espagnole). On pourrait appeler ce groupe, par opposition au premier, centro-oriental. Nous justifierions ce classement par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d’un dialecte à l’autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que le saut est assez brusque quand on passe du guipuzcoan au biscayen. Ce dernier se distingue en effet, dans toute une partie de sa conjugaison, par l’emploi d’auxiliaires qui lui sont propres, il offre des particularités typiques dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et enfin son vocabulaire a souvent des mots non compris des autres Basques”. (Lacombe, 260-261. orr.).

Tesi honen aldeko agertuko zen halaber H. Gavel Baionako Euskal Erakustokian 1928ko uztailaren 28an eginiko hitzaldian:

“Dans son état actuel la langue basque apparaît assez fortement diversifiée suivant les régions: ses variétés peuvent se ramener à sept ou huit dialectes principaux qui n’ont pas tous une importance égale au point de vue littéraire. Ces dialectes à leur tour peuvent être classés en deux groupes, le biscayen constituant à lui seul l’un de ceux-ci. (...)” (Gavel. 11. orr.).

Baita Julio de Urquijo ere Espainiako Erret Akademian 1929ko azaroaren 24ean egindako sarrera hitzaldian:

“(…) ocho dialectos que, en un momento dado, debieron de reducirse sólo a dos, el antepasado del vizcaíno y el de los otros siete dialectos vascos, y en una época mucho más remota constituyeron una única habla”. (Urquijo, 404. orr.).



Bultzada berria emango zion tesi honi Uhlenbeck hizkuntzalari holandarak lehenengoz 1942an plazaratutako artikulu baten:

“(...) Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l’impression qu’il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n’étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l’un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoires espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d’autres mots l’effacement graduel des limites indubitablement nettes rutrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours. (...)” (Uhlenbeck, 544. orr.).

J. Gorostiaga euskaltzaina ere bat etorriko da eritzi honen aldekoekin:

“Si estudiamos el aspecto de los nombres vascos de los días de la semana, se impone, lo mismo en éste que en otros campos de la historia y de la etnografía, una repartición entre los actuales dialectos del idioma, entre el más occidental, el Bizkaino (B) y el resto que podemos llamar Vascón (V)”. (Gorostiaga, 1947, 49. orr.).

Harrez gero ere behin eta berriz mintzatu izan da gai honetaz (ikus, esate baterako, beraren “Bizkai Zaharreko Izenak”, *Euzko-Gogoa*, III (1952), 5-6 zb., 22-25. orr. edo “La semana vasca: origen e historia”, *La Gran Enciclopedia Vasca (VII)*, Bilbao, 1972, (127-133), 127-128. orr.). Gorostiagak, bestalde, toponimia dakar bere baieztapenen sendogarri:

“En primer lugar, su repartición geográfica (*uri* hitzarena, alegia) es la del dialecto ‘vizcaino’ y más exactamente ‘várdulo-caristio-autrigón’, que además del dominio de la mas antigua Guipúzcoa, Alava y Vizcaya, comprendía el de La Rioja y Bureba. Esta división (...) responde sin duda a una anterior distribución que la administración romana respetó y que vendría de los tiempos célticos y aun prehistóricos.

Por los escasos indicios que del ‘ibérico’ poseemos, vemos que la actual repartición de dialectos vascos en ‘vizcaino’ y ‘vascón-aquitánico’ existía ya en el mundo ibérico, pues *Iliberri* y ciertos nombres terminados en *-Bels* nos indican suficientemente que ellos son representantes del dialecto que posee *Iri* en frente de *Uri*, *Berri* en frente de *Barri* y *Beltz* en frente de *Baltz*. (...)” (Gorostiaga, 1953, 132. orr.).

Gure egunotan ere bada eritzi honen aztamarik Oskillasok berrikitan argitara emandako liburu baten irakur daitekeenez:

“(...) el euskára en realidad comprende dos lenguas de la misma familia, el vizcaino y el resto, ambas con multitud de dialectos. (...)” (Oskillaso, 143. orr.).

### 3. “GIPUZKERA OSOTUA”-REN GAINBEHERA ETA “ULTRABIZKAIERA”-REN SORRERA

Azkueren “gipuzkera osotua” izeneko proposamena dugu gerraurrean eredu standarderako izan den projekturik aipagarriena. Eredu honen porrota ulertzeko egon daitezkeen arrazoien artean bat bakarrik nahi nuke hemen

azpimarratu: Azkueren asmoa, izenak berak ere salatzen duenez, gipuzkera (Beterriko gipuzkera zehatzago izateko) oinarriztat dela euskalki hau gainerako guztien aberastasunez hornitzea bazen ere, idazle eta euskaltzale giputzek –ez guztiek, jakina– proposamena teoriarik ontzat emango duten arren, euren jardunean “gipuzkera osotu” hori “gipuzkera hutsarekin” parekatzea joko dute. Jarrera honen ageriko adierazpenik aurkitzerik izan ez badut ere, iruditzen zait Gáscueren honek ederki asko lagun gaitzakeela delako jarrera hori ulertzen:

“He creído advertir en algunos escritores guipuzcoanos (perdón si blasfemo sin quererlo) cierta propensión á introducir en sus escritos palabras y hasta giros de otros dialectos, como el labortano, por ejemplo, ó el que se habla en el duranguésado.

Si esto es así, no van por buen camino. No hace mucho me hacía notar el distinguido bascófilo Campión, que el guipuzcoano era un dialecto invasor, cuya influencia se iba extendiendo sin parar, aunque lentamente, en gran parte del país euskaro. ¿Por qué esa invasión? Pues precisamente por lo que antes he dicho: porque el dialecto guipuzcoano, tal como se emplea en Tolosa y sus alrededores, es, de todos los vascongados, el más claro, el más diáfano, el más inteligible y el más armonioso. Lo fácil vence, aun dentro de la región y debe vencer.

Por tanto, los escritores guipuzcoanos, deben poner, á mi juicio, el mayor esmero en conservar puro su dialecto. Con ello harán un gran bien á todo el país. Nada de buscar palabras y giros en dialectos distintos al nuestro, sino cultivar este con predilección, para que, propagándose por ley natural, la difusión del vascuence se consiga de modo más rápido”. (Gáscue, 291. orr.).

Enparatuen aberastasunez baliatu nahi ez izateaz gainera, Gipuzkoan bertan ere esparru murrizta daukaten ezaugarriek emango zaie maiz lehentasuna, euskaldunen gehiengoari ulergarri gerta zekizkietenak alde batera utziz. Hone-lara mintzo zen Mitxelena 1958an, Bilbon izandako Euskalzaleen Biltzarra-n, idazle giputzek zeinahi batasun asmoren aurka zihoazen txokokeriez baliatzeko erakusten zuten jarrera hori zela eta:

“(…) Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear dut: izugarritzeko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrak azken bolada ontan ikako formekin. *Gatxabiltzek* eta orrelakoak Gipuzkoako txoko batean bakarrik erabiltzen dirala. Euskaldun guztiak *giabiltzak*, *gebiltzak* edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, *gatxabiltzek*, *natxetorrek* eta oiek lokalismo estu estuak dira Gipuzkoan. Eta nik ez tut uste gipuzkoarrok, nik neronek ere ez titut erabiltzen eta gure inguruan ez tira erabiltzen, eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiai zabaldu nai izateko. (...)” (Mitxelena, 1959a, 171. orr).

Jokabide honen aurrean, hain zuzen ere, hasiera baten “gipuzkera osotua”-ren alde egingo zuten bizkaitar zenbaitek, asmo hori bertan behera utzirik euren euskalkian idaztera joko zuen gerora. Diodana frogatzeko aurkitu ditudan adibideen artean hona hemen Ibinagabeitiaren hau:

“Izkelgiz gipuzkoar yaio diranei oartxo bat egin nai nieke bukatu baño len. Gipuzkoarrak erakutsi digute ontan ere targorik zoroena. Akademiak aspaldi erabaki zun aditz laguntzallean DUT, DUZU ta urrengoak erabiltzeko, *det* eta *dot'en* orde. Orra, gipuzkoarrak oraindik agindu aditzeratara malgutzeke; beti ere beren zorigaiztoko DET erabilki agertzen zaizkigu: orrela Etxaide, Aspaldiko, Mitxelena Salvatore, Lopez Mendizabal, Amillaitz, Antxeta eta

abar. Yaunak, zuek ere ikasi ezazute zuenetik zerbait uzten batasunaren one-rako. Besteok askoz ere erauzketa aundi ta mingarriagoak egin bear izan ditugu zuen izkelgi ederrari indar emateko”. (Ibinagabeitia, 239. orr.).

Antzera mintzo zen Eusebio Erkiaga 1953ko uztailaren 21ean Aita Onain-diari egindako gutunean:

“Hontaz, badakizu gure arteko betiko eztabaidak. Giputzak beti giputz bakarrik. Osotasuna, edota batasuna euren euskalkiz nahi dabe, eurak ezer aldatzeke, eta nekhatzeke. Besteok gara nekhatu eta ikasten saiatu behar dugunok”. (Onaindia, 15-16. orr.).

Aurre-Apraizek ere behin eta berriz eraso izan du giputzen jarrera chauvi-nista hau. Honela zioen 1954an argitaratutako artikulu baten:

“Biizkaitarrok naste-zale geran bezin burukoi dira giputz asko, Mikel.

Eurena edertutzeko ere ezin dute eda egorik alboetara. Eurena uts-utsik da ona, antza. Onak dagoz orreik guk bezela geurea utzi eta auzokoa artzeko.

Gipuzkoar batek esan zidan bein: “Orixe’ren “MEZA-BEZPERAK”ren euskera gipuzkoarrei zail egiten zaie”. Lotsagarria, Mikel. Gipuzkoarrakin inoiz ibil ez dan edozein bizkaitarrek ulertuko luke, eta giputzak, eurak, ulertu ezin...” (Aurre-Apraiz, 1954, 186. orr.).

Erabatekoagoa oraindik agertuko zen 1964ko beste baten:

“Aldi atan, jo ta kee ekin bere ekin neutsan ba ari (‘gipuzkera osotuari’, alegia), bide ari, beste guztiak bere araxe joko ebelakoan. (Etxaide’k berak bere auxe uste eban orduan...). Ezkengozan txarrak. Dana dala, kipuzkoarren aditzak ikasi nituan (...). Aittetu dodan neure adiskide zintzoa (J. Etxaide, alegia) ta besteren bat edo beste ezik, kiputzak euren zorioneko *det-i* deutsela jarraielatzen ikusten nituan, tamalez, *nebeari anaia*, *atzamarreri beatzak*, *bekokiari kopeta* eta abar gogaikarriro idatziaz; eta, ‘guk geuk geurea osorik itxita besteak ezin eurenetik apurtxurik bere baztertu, batasunaren onarren, egokiagoak artzeko?’ esan neban neure kolkorako. Orrexegaitik eta beste zio batzukaitik mingostuta, itxi egin neban, ba, kipuzkera osotua. Eta ganera (...) bizkaierari eldu neutsan barrien-barri, gogokotasun itzelez, leen baiño be sutuago”. (Aurre-Apraiz, 1964, 49. orr.).

Erants dezadan, amaitzeko, hauxe berau izango zela Oskillasok –goiko guztiak bezala bizkaitarra hau ere– Azkueren “euskera osotua” alde batera utzi eta horren ordeztu “euskara osotua” aldarrikatzeko izan zuen arrazoietariko bat.

Jarrera hauen islada erraz somatu ahal izango da bizkaierak garai honetan zehar ezagutuko duen bilakabidean. Eginahalak egingo dira bizkaieraren berezitasunak azpimarratzeko, berezitasunok, sarri askotan, benetakoak barik ustezkoak diren arren. Ustezko berezitasunok hiru multzo nagusitara bil daitezke gehientsuenetan: Alde batetik, bizkaierak analogikoki sortutako *berrikuntzak* genituzke, goraxeago aipatu den –z pluralgilea esate baterako. Bigarrenik, gainerako euskalkiek galdu eta bizkaierak gordetako *arkaismoak* aurkitzen ditugu, joan eta *eroan* aditzekin eratutako ohiturazko esamoldeak edota agintekera-ko geroaldiak adibidez. Hirugarrenik, berriz, bizkaieraren eremuan bertan ere *oso erabilera murrizta* daukaten ezaugarriak aipa litezke eta multzo honetako lekukorik adierazgarrienak harmonizazio bokalikoaren ondorioz sortzen diren fonetismo zenbaiti emango zaion nagusitasuna (eta honetan aitzindaririk eza-gunena J. A. Moguel genuke, beronek, Añibaroren erreguei ezentzun eginez, Markinaldekoak hautatuko bait ditu, geroago etorriko diren Arana-Goiri eta

beronen jarraitzaileen eredu bihurtuz) eta, jakina, hiztegi mailan egingo diren aukerak –betiere gainerako euskalkietako euskaldunei arrotz gerta dakizkienak hobetsiz– lirateke.

Guzti honen ondorioz, bada, euskararen osotasunarekin, bizkaieraren beraren tradizio zaharrarekin eta bai bizkaitarrek eurek eguneroko jardunean darabilten hizkerarekin ere bapateko eten bat suertatuko da, “ultrabizkaiera” izendatzen dudan *bizkaiera berria* gauzatuz.

Aspaldidanik salatu zituen S. Altubek –askotxok entzungor egin badio ere– “ultrabizkaiera” horren badaezpadako sustraiak. Azkueren *Morfología Vasca-z* mintzo zelarik zera ohareraziko zuen –z pluralgilea dela eta:

“(…) se da como cosa averiguada –*Morfología-n*, alegia– que, primitivamente, en Bizcaya solo se empleaban flexiones como *Dauz-dodaz...*, *Gau(z)-gauzu(z)...*, *Zau(z)-zaugu(z)...* y que luego fueron importadas de Gipuzkoa las sinónimas *Ditu-ditut...*, *Gaitu-gaituzu...*, *Zaitu-zaitugu...* Y esto se asegura sin tener en cuenta que la serie completa de las formas *Ditu...* es corrientemente empleada en los documentos más antiguos del euskalki bizkaíno y que, en cambio, escasean mucho las del tipo *Dauz*, *Gauz* (...)”. (Altube, 1934, 110-111. orr).

Jarraian, 1596ko *RS-en* behin ere ez dela *dauz-doguz* erakorik agertzen esaten du. Capanagak darabiltzan bakarrak *doguz* eta *dodaz* direla baieztatzen du, gainerakoetan *Dituz-ditudaz-ditugu-dituez*; *Gaitu-gaituz-gaituez*; *Zaituz-zaitudaz* ageri diren bitartean. Micoletak, azkenik, *ditu-dituez* zein *doguz* biak darabiltzala dio. Bukatzeko, honako ondorio honetara iristen da:

“Opino que las formas comunes, las universalmente euskéricas, fueron antiguamente *Ditu-Gaitu*, etcétera, hasta que el euskalki B, separándose del uso común, formó algunas flexiones del tipo *Dauz*, *Gauz...* (no se tiene noticia de que la serie completa se haya usado jamás fuera de alguna zona muy reducida del dialecto bizkaíno). Las más antiguas entre estas últimas (y aun hoy las más generalizadas) son las que usa Capanaga o sea, *Dodaz-Doguz* y sus morfológicamente similares *Dozuz-Dozuez*, las que seguramente surgieron a imitación de las flexiones peculiares bizkaínas de otros verbos, tales como *Daukadaz-Daukaguz* y *Daukazuz-Daukazuez*”. (Altube, 1934, 111. orr.).

Eta beherago oraindik:

“A mi modo de ver, en épocas muy remotas de la vida del euskera, no existía un pluralizador común y uniforme para las flexiones de los distintos verbos (...)”.

En el proceso de la elaboración premiosa de estas pluralizaciones surgió el morfema *z* que mereció una mayor aceptación que sus sinónimas, habiendo llegado a incorporarse casi a todos los verbos como índice o característica de sus flexiones plurales. Los verbos que *conservaron* la pluralización particular o individual fueron, especialmente los *fuertes* por excelencia: los auxiliares *Izan* (*Da-dira...*) y *\*Edun* (*Du-ditu...*); en bizkaíno, a causa de la posición *destacada* (sufijo *final*) que ocupa en las flexiones dicho pluralizador *z*, ha alcanzado éste mayor fuerza expansiva, ingiriéndose hasta en esas flexiones auxiliares, bien como pleonástico (*diraz*, *dituz...*) o bien (en algunas zonas y en ciertas flexiones) con carácter exclusivo (*doguz*, *dozuz...*)”. (Altube, 1934, 111-112. orr.).

Eritz berberoni eusten zion 1946an Baionan egindako hitzaldi baten:

“El verbo vizcaíno, por ejemplo, en la conjugación del auxiliar transitivo, emplea dos formas subdialectales para traducir las flexiones castellanas tales

como *los he, los has, los ha*, etc. Así la frase ‘los ha visto’, unos lo traducen por ‘ikusi ditu’ y otros por ‘ikusi dauz’. Y ya se sabe que son varios los gramáticos vizcainos que han otorgado su preferencia a la segunda de esas formas.

No hubiera ocurrido tal cosa si hubiera prevalecido el criterio de la unificación o siquiera de la aproximación de las formas literarias de los diversos euskalkis, ya que, como es sabido, es la forma “ikusi *ditu*”, o sea la postergada por los aludidos gramáticos, la forma usual y corriente (con pequeñas variaciones fonéticas), no sólo en el guipuzcoano sino aun en todos los demás euskalkis.

Y se ha efectuado esa elección aisladora o disgregadora a pesar de que el vizcaino literario, aun para el uso interno, podría haber adoptado la forma común “ikusi *ditu*”, con tanta o mayor facilidad que su concurrente: 1.º porque su uso en el lenguaje hablado se extiende a un número de habitantes tan grande como el de la otra, y 2.º porque sus compañeras de paradigma (‘ikusi *gaitu, zaitu y zaitue*’) se emplean casi exclusivamente en todo el área del vizcaino, únicamente se usan, que yo sepa, las formas disidentes (Ikusi *gau(z), zau(z), zaue(z)*, en mi pueblo natal (Arrasaten, alegia) y sus proximidades”. (Altube, 1949, 198. orr.).

Oso argigarriak dira halaber A. Tovarrek bere *El Euskera y sus parientes* (Minotauro, Madrid, 1959) liburuaen “El vizcaíno entre los dialectos vascos” (146-177. orr.) izeneko kapituluaren (ultra)bizkaieraren auzi honi eskaintzen dizkion erroak. Tovarren lan honetan oinarrituz hain zuzen, zera esango zuen Mitxelena:

“(…) los tratadistas se ha empeñado en trazar estos últimos años, con regla y cartabón, un supervizcaíno, tan apartado como sea posible del vasco común. Sirva de ejemplo de lo que digo el vizcaino *gintzan* ‘éramos’, que el autor toma de fuentes en general bien autorizadas en la p. 161. Según Azkue, *Morfología vasca*, pág. 642, se usa *gintzezan* en Amorebieta, *gintzezen* en Villarreal de Alava, *gintzan* en Oñate y *gintzen* en Begoña, y añade: ‘Es muy creíble que hace como cuatro o cinco siglos no se diría en B. ninguno de esos *giñan, giñen, giñian...* etc.’. Ahora bien, es evidente que no tenemos ningún medio para *oir* lo que decían los vizcaínos de hace cuatro o cinco siglos o los castellanos de la época de Alfonso el Sabio, pero que tenemos algunos para *saber* lo que decían: los textos escritos. Y los textos antiguos nos ofrecen siempre, en cuanto sé, formas como *ginean* y nunca variantes del tipo *gintza-(za)n* que, como salta a la vista, son el resultado de la acción analógica, reciente a juzgar por los testimonios históricos, de *nintzan* ‘yo era’, etc.”. (Mitxelena, 1959b, 79. orr.).

Mitxelenaren esanen sendogarri erantsiko dugu Micoletaren ikasbidean (1653) honako adizki hauexek datozela (Micoleta, 7. orr.): *ni ninsá; su sineá; a sá; guéc guinean; suéc sinean; aec syrean*.

Berdin Aita M. Larramendiren gramatikan (1729) ere (Larramendi, 167. orr.): *nintzan; inza; cinean; zan; guinean; cinean; cirean*.

Añibarrorean ikus daitekeenez, ordean, abian jarrita zeuden berrikuntzak (Añibarro, 20. orr.): *nintzan; ciñian; zan; guiñian/guintzan; ciñeean; cirian*.

Baita Zavalaren gramatikan ere (Zavala, 134. orr.): *zan; cintzan/cinean; nintzan; cirean; cintzen/cineen; guintzan/guinean*.

Geroztik ere hitz gogorak izan ditu Mitxelenak ultrabizkaiera hau dela eta. 1959ko azaroan J. A. Moguelen gorazarrez Eibarren antolatutako Euskal-zaleen Biltzarra-n izandako eztabaidetariko baten, adibidez, honela mintzatzzen:

“(…) nere ustez, ezta egoki bizkaitarrak, besteengandik beren buruak bereizteko, alako separatismo kutsu batekin, erderaz nik ‘supervizcaino’ deitzen dudana, sortzen astea, sortzen asteko eskubiderik eztute. Bizkaitar idazle guztiak *ditu* edo *dituz* jarri baldin badute, bizkaitarrak eztute eskubiderik *ditu* edo *dituz* Gipuzkoako formak dirala esateko, Euskalerrri guztikoak diralako, eta orien orde *dauz* ipintzeko. Edo, Bizkaiko idazle guztiak *zitu*an edo *zitzu*an jarri baldin badute, *ebazan* orren ordean jartzeko. Eta asko daude orrelakoak. Bizkaian erri gutxi batzuetan *gintzan* edo *gintzazan* esaten baldin badute, ia Bizkai guztian esaten dana eta Euskalerrri guztian esaten dana gutxi gora beera, lenago dago bestea baiño (*giñean*, *giñuan*)”. (Mitxelena, 1960a, 93. orr.).

Antzera ziharduen hurrengo urtean argitara emandako beste artikuluko baten:

“Siempre me ha extrañado una especie de imperialismo lingüístico guipuzcoano con el que me suelo tropezar con frecuencia. En realidad, no me extraño de nuestras ambiciones expansionistas en sí, naturales aunque no justificadas, sino de la docilidad con que nuestros vecinos suelen aceptar nuestras pretensiones.

Este ejemplar espíritu de no resistencia a nuestras ambiciones, por desmesuradas que sean, se observa sobre todo en nuestros hermanos vizcaínos. Hace ya años que evitan usar por escrito formas verbales como *ditu(z)* o *zitu(z)an*, sin duda por el temor de que hagamos valer nuestros derechos de autor o patentes de invención. Se han apresurado incluso a anticiparse a nuestros deseos con respecto a *gaitu(z)*, *zaitu(z)*, etc., con un laudable, aunque exagerado, respeto por la propiedad ajena.

Para tranquilizar estos escrúpulos excesivos, basta con repetir que *ditu*, por ejemplo, es tan vizcaíno como guipuzcoano. En realidad, *dauz*, para no hablar de *gauz*, etc., es una innovación vizcaína muy reciente según todos los testimonios. Si los vizcaínos prefieren escribir *dauz* o *gintzazan* en vez de *ditu(z)* o *giñean*, apartándose de todos los demás vascos y de prácticamente todos los autores que han utilizado su dialecto hasta fines de siglo, son perfectamente dueños de hacerlo. Pero, si quieren seguir fieles a la tradición, no necesitan sentir la menor intranquilidad de conciencia. Una forma verbal como *ditu* les corresponde en propiedad: es vasca común, vasca a secas, sin adscripción exclusiva a ninguna variedad de la lengua”. (Mitxelena, 1960b, 236. orr.).

Berrikitan ere ekin izan dio gai honi:

“(…) algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida en que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común”. (Mitxelena, 1981, 300. orr.).

Altubek eta Mitxelenak *-it-/-z* pluralgileez esandakoa zehaztuz, erants dezadan XVII. mendera arte lehenbizikoak (*-it-* dunak alegia) nagusi diren arren *-eta* iraganaldian, gainera, era honetakoak dira agertzen diren bakarrak-, behin XVIII. menderaz gero analogikoki sortutakoak (*-z* dunak) joango direla

lekua irabaziz. Hauexek dira, adibidez, Larramendik biltzen dituenak (Larramendi, 89. orr.):

a) Orainaldian: *dódaz; dozac/an; dózuz; dituz; doguz; dozuez/dozuz; davez/dituez.*

b) Iraganaldian: *nevazan/nituzan; evazá/ituzan; cenduzan; evazan; guenduzan; cenduzaen; eveezan/cituezan.*

Antzerako egoera isladatzen da Añibarroren gramatikan ere (Añibarro, 23-24. orr.):

a) Orainaldian: *dodaz/ditut/ditudaz; dozuz/dituzuz; ditu/dituz; doguz/dituzuz; dozuez/dituzuez/dituzubez; dituez/tubez/daudeez/dabeez.*

b) Iraganaldian: *nituan/nituzan; cenduzan; cituan/cituzan; guenduzan; cenduezan/cendubezan; cituen/cituezan.*

Azkueren eta Altubereren arteko eztabaidari argi egiteko, azkenik, azpimarra dezadan, Yrizarrek lehenengoz 1948an argitaratutako emaitzez baliatuz (Yrizar, 56. orr.), *dauz* (=ditu), Urrunaga, Zigoitia eta Urbina Gojaineko hizkeretan baizik ez ornen zela erabiltzen. *Gau-zau-zaue* (=Gaitu-zaitu-zaituzte), berriz, Oñati eta Leintz aldean eta *Gauz-zauz-zauriez/zaue*, Zigoitia, Urrunaga eta Urbina Gojainen (Yrizar, 68. orr.).

#### 4. ONDORIO ZENBAIT

Bizkaierak azken mendeotan izan duen bilakabideaz eta “ultrabizkaiera” horren sorrerarekin zerikusirik izan dezaketen gertaerez zertxobait jardun ondoren nabarmen ageri dela ematen du, eta izkribu zaharrak dira horren lekuko, aspaldiko denboretan gaurregun baino askozaz hurbilago zebilela gainontzeko euskalkietatik. Hortaz, euskalki honek Euskal Herri barruan daukan kokaguneari edo, bestelako hitzez esateko, bazter-euskalkia izateari zor dio, beste ezeri baino gehiago, bere apartekotasuna. Ez dirudi, bada, jatorri ezberdineko hizkuntzatat ez eta gainerako euskalkien multzoari kontrajartzen zaion euskalkitzat jo daitekeenik. Ez, behinik behin, beste zenbait bazter-euskalki (zubera, erronkaria edo zaraitzua esate baterako) baino neurri haundiagoan.

Baina iraganari buruz gauzak argi samar egon daitezkeen arren, izan daiteke buruhausterik etorkizunari begira. Badirudi, euskarak, bere normalizazio bidean aurreratu ahala, orain arte erdararenak izan diren esparru asko eta asko bereganatu egin beharko dituela baina baita, horrekin batera, orain arte euskara standardarenak (=euskara batua) izan diren beste zenbait ere euskalkiek eta standardaz landara diren beste erregistroek –hauetaz gure artean ezer gutxi esan bada ere orain arte!– ordezkatu beharko dituztela. Ordezkatze horri so gaudelarik, bizkaieraren “arazoak” –eta antzerako zerbait esango nuke Lafittez geroztik “navarro-labourdin littéraire” izenaz ezagutzen den substandardaren gainean– konponbiderik izango badu, eta ohizko akats berbertan behaztopa ez dezagun, badira nahitaezkozat jo daitezkeen arau zenbait:

1. Euskara bere osotasunean hartzea litzateke lehenbiziko baldintza, gainontzeko euskalkiengandik hurbilen –eta ez urrunen– dauden aukerak bultzatuz.

2. Euskalki bakoitzaren ustezko berezitasunen oinarria zehaztea izango dugu beste baldintzetariko bat, ustezko berezitasunok, esaera zaharrak dioenez, erdia ustel ere gerta bait daitezke inoiz. Ezinbestekoa dugu, beraz, euskal-

ki guztien eta bakoitzaren nondik-norakoa, lekukorik zaharrenetatik hasita, ezagutzea.

3. Euskalki edo sub-standard bakoitzaren esparruan ere, azkenik, eskualde, herri eta herrixka mailako txokokeriak baztertzeko arreta berezia beharko da jarri, euskalki horretan hedatuena eta sustrairik sakonenak bota dituzten ezaugarrien aldeko aukerak hobetsiz.

## BIBLIOGRAFIA

ALTUBE, Severo.

1934: "Observaciones al Tratado de 'Morfología Vasca' de Don R. M. de Azkue", *Euskera*, XV (1934), I-II. zb., 5-231. orr.

1949: "La Unificación del Euskera Literario", *Eusko-Jakintza*, III (1949), 2-3. zb., 181-204. orr.

AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, "Gramática bascongada para el uso, y alivio de Párrocos, y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos, y Navarros", *ASJU*, III (1969), 5-169. orr.

ARANA-GOIRI, Sabino de, "Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino", *Obras Completas*, Sabindiar<sup>1</sup>-Batza, Baiona, 1965, 810-982. orr.

ARRIANDIAGA, Manuel de, C. M. F., "¿Euzkera ala euskera?", *RIEV*, I (1907), 642-672. orr.

AURRE-APRAIZ, B.

1954: "Gutun agiria", *Euzko-Gogoa*, V (1954), 11-12 zb., 186-187. orr.

1964: "Batasuna dala-ta", *Egan*, XXIII (1964), 1-6. zb., 48-50. orr.

AZKUE, Resurrección M.<sup>a</sup> de, "Morfología Vasca", *Euskera*, V (1924).

BASTERRECHEA, José "Oskillaso", *El libro negro del euskara*, Bilbao, 1984. *Congrés de Cultura Catalana. Resolucions* (3 liburuki), Països Catalans, 1978.

ELEIZALDE<sup>1</sup>tar Koldobika, "Raza, Lengua y Nación vascas", *Euzkadi*, VIII (1911), 10. zb., 243-276. orr.

FUSTER, Joan, *Nosaltres els valencians*, Edicions 62, Barcelona, 1977.

GASCUE, F., "El renacimiento del vascuence", *Euskal-erria*, XXVII (15-10-1907), 946. zb., 288-294. orr.

GAVEL Henri, "Langue basque", *Bulletin du Musée Basque* (1928), 3-4. zb., 1-12. orr.

GOROSTIAGA, Juan.

1947: "La Semana Vasca: El sistema y los nombres de los días", *Eusko-Jakintza*, I (1947), I. zb., 49-54. orr.

1953: "Los nombres terminados en URI 'VILLA', *Gernika* (1953), n.º 24, 132-133. orr.

IBINAGABEITIA<sup>1</sup>tar Andima, "Kultur-bidean", *Gernika* (1952), 21. zb., 237-239. orr.

LACOMBE, Georges, "Langue basque", *Les langues du monde*, CNRS, Paris, 1952, 255-270. orr.



- LARRAMENDI, P. Manuel de, *El imposible vencido. Arte de la Lengua bascongada*, Salamanca, 1729.
- MICOLETA, Rafael, *Modo Breve de aprender la Lengua Bizcayna*, Bilbao, 1653.
- MITXELENA, Luis.  
 1959a: *Euskera*, IV (1959), 171. orr.  
 1959b: “A. TOVAR. El euskera y sus parientes”, *BRSVAP*, XV (1959), 77-79. orr.  
 1960a: *Euskera*, V (1960), 93. orr.  
 1960b: “Guipuzcoano y vasco”, *BRSVAP*, XVI (1960), Cuaderno 2.º, 236-238.orr.  
 1981: “Lengua común y dialectos vascos”, *ASJU*, XV (1981), 291-313. orr.
- ONAINDIA, S., *Eskutitzak*, Bilbao, 1974.
- RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O.F.M., “Cartas del P. Uriarte al príncipe Luis Luciano Bonaparte”, *ASJU*, I (1954), 35-106. orr.
- UHLENBECK, C. C., “Les Couches Anciennes du Vocabulaire Basque”, *Eusko-Jakintza*, I (1947), V-VI. zb., 543-581. orr.
- URQUIJO, Julio de, “De algunos problemas de interés general que suscita el Vascuence”, *RIEV*, XXVII (1936), 385-430. orr.
- VAN EYS, W. J., *Grammaire Comparée des Dialectes basques*, Paris, 1879.
- YRIZAR, Pedro de, “Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco. II”, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca (Z)*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981, 31-39. orr.
- ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, San Sebastián, 1848.